


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

ARTE BIZIAK / MUSIKA ETA SOINUA **MAI. 18** (lar.)

Julia Eckhardt & Asmus Tietchens

*Hotsetan, musika esperimentaleko
programa*



Asmus Tietchens musikari alemaniarra eta **Julia Eckhardt** artista belgikarra beren azken lana aurkeztuko dute musika esperimentaleko Hotsetan programaren barruan, programa horren xedea hurbileko nahiz nazioarteko artisten soinu-lanak ezagutzera ematea izanik.

Asmus Tietchens 1947an jaio zen Hamburgan. 1960ko hamarkadan, modu autodidaktan hasi zen esperimentatzen sintetizagailuekin eta zinta-loopekin, eta era askotako lanak sortu ditu bere ibilbide luzean barrena. 1980ko hamarkadan, lan batzuk egin zituen erritmoa eta harmonia uztartuz Sky zigiluarentzat, eta, hamarkada horren erdialdean, Alemaniako musika industrialeko giro aktiboan murgildu zen. **Gaur egun, musika elektroakustikoko figurarik garrantzitsu eta itzaltsuenetako bat da, eta jardunean jarraitzen du oraindik.**

Julia Eckhardt, musika konposizio eta inprobisazio garaikidearen alorrean aritzen den biola jolea da.

Ikasketak osatu ondotik, ganbara musikari eskainitako hainbat talderekin jo izan du, nagusiki garaikideak, baina baita Belgikako Orkestra Nazionalarekin ere.

1995ean soinu arteari eta musika esperimentalei eskainitako Q-02 espazioa ireki zuen Bruselan eta oraindik bertako arduradun artistiko gisara egiten du lan. Besteak beste, Phill Niblock, Pauline Oliveros, Stevie Wishart, Jennifer Walshe, Wandelweiser kolektiboa, Christian Wolff edo Antony Coleman bezalako konposatzaileekin lan egin izan du, eta György Kurtag, John Cage, Chiyoko Szlavnic, Anne Wellmer edo Radu Malfattik idatzitako bakarkako lanak interpretatu izan ditu. Horrez gain, azken 15 urteotan nazioarteko inprobisazio askearen eszenan aktiboki parte hartu du eta Manfred Werder, Normisa Pereira da Silva, Angharad Davies eta Stefan Thut-ekin batera musika kontzeptualari eskainitako Incidental Music taldeko kide da. Berlingen hazi ondotik, egun Bruselan bizi da.



Maiatzak 18, larunbata

19:00

Lantegia 2

8€ / 6€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus



www.q-02.be/en/artist/julia-eckhardt



www.tietchens.de